



EBAZPENA (3/2010 esp., IGOGAILUEN MANTENTZE-LANAK)

Osoko bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria
Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea
María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea
José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 22an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEI buruzko 3/2010 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, Galdakaoko Simón Linaza kaleko 1. zenbakiko Jabeen Erkidegoak ipini zuen salaketa baten ondorioz. Salaketa horretan adierazi zen, ustez, lehia murrizten zituzten jardunbideak egin zirela.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2009ko urriaren 14an, Eduardo López Puente jaunak Galdakaoko Simón Linaza kaleko 1. zenbakiko Jabeen Erkidegoaren izen eta ordezkaritzan sinatutako idazkia sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan. Horren bitartez jakinarazi zen Lehiaren Defentsari buruzko Legeak debekatutako jokabideak egin zirela, ustez.

Bigarrena.- Idazki horretan honakoa jakinarazi zen:

Galdakaoko Simón Linaza kaleko 1. zenbakiko Jabeen Erkidegoa 2007ko apirilean eratu zen, eta lau bizilagun ditu.

Igogailua mantentzeko eskaintza eskatu zion igogailua egin zuen enpresari (Zardoya Otis). Hilean 185 €-ko eskaintza jaso zuten, eta gehiegizkoa zela iruditu zitzaien.

Eskaintzak eskatu zizkieten sektoreko beste enpresa batzuei, baina ez zuten bat ere jaso. Enpresek esan zieten eskaintzarik egin nahi ez zutela, ekipo horietarako ordezko piezarik ez zutela, edo enpresa aldatzea komeni ez zitzaizela, igogailuak bermea zuelako.



Azkenean beste eskaintza bat egin zien Zardoya Otisek, hilean 104 €-koa, baina 10 urterako kontratuarekin, eta kontratua desegitekotan gainerakoaren % 50 ordaindu beharko zela.

Hirugarrena.– 2009ko abenduaren 15ean Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak agindeia egin zion salatzaileari, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsi zuen Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako huts hauek zuzen zitzaizkion:

- Espedientean aztertutako salaketa aurkezteko akordioa, eta Erkidegoko presidente edo salaketa Erkidegoaren izenean aurkezteko ahalorde nahikoa ematen dion kargudun izendatzeko Jabeen Erkidego horren aktaren edo akten kopia.
- Beste enpresekin (salatutako enpresa ez direnekin) egindako ekimenak (harremanak, eskaintzak, proposamenak, negoziazioak...), jasotako erantzunak eta, hala badagokio, horien agiri-frogak.
- Salatutako enpresarekin izandako kudeaketak, negoziazioak, jakinarazpenak...
- Salatutako enpresarekin izandako harremanei buruzko agiri guztiak. Enpresak aurkeztutako lehenengo eskaintza (185 €) ere aurkeztu.

2009ko abenduaren 28an jaso zuen Galdakaoko Simón Linaza kaleko 1. zenbakiko Jabeen Erkidegoak hutsak zuzentzeko agindei hori, eta ez zuen bete.

Laugarrena.– 2010eko maiatzaren 5ean LDEZk ebazpen-proposamena bidali zion Auzitegi honi, bai eta aipatutako administrazio-espedita ere, 3/2010 zenbakia (Igogailuen mantentze-lanak) duela Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honetan.

Bosgarrena.– Auzitegiak 2010eko abenduaren 22ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, Juan Luis Crucelegui Garate jauna zela txostengilea.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Lehiaren Defentsari buruzko aipatutako 15/2007 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*
2. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak, alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak, beren eginkizunei dagokienez, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikuluekin bat etorritz.
3. LDEZk LDEA honek aztertzeke egin duen ebazpen-proposamenak dio salatzaileak ez dituela zuzendu LDEZk ikusitako akatsak eta, beraz, uko egin duela ondorioztatu behar dela, jarduerak artxibatuz, ondorioz.
4. Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak 25.3 artikuluan dio salaketak agindu horretan ezarritako baldintzak bete ezean, agindeia egingo zaiola salatzaileari, hamar eguneko epean hutsa zuzendu edo eskatutako agiriak aurkez ditzan. Halaber, agindutakoa bete ezean salaketari uko egin zaiola ondorioztatuko dela adierazten du.

Galdakaoko (Bizkaia) Simón Linaza kaleko 1. zenbakiko Jabeen Erkidegoak, bertako kide baten bitartez (Eduardo López Puente jauna), salaketa aurkeztu zuen LDEZn, Bigarren Aurrekarian deskribatutako gerkatariak salatuz, jardunbide erabat desleialtzat jo zituela. LDEZk hutsak zuzentzeko agindeia egin zion salatzaileari 2009ko abenduaren 18an, eta huts horiek funtsezkoak ziren (zerrendatu egin dira).

Ebazpen hau egin den egunean Jabeen Erkidegoak ez duenez bete LDEZk egindako agindeia, eta soberan igaro denez LDEZk salaketa-idazketa zuzentzeko emandako epea, LDEA honek, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 25.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, onetsi egingo du LDEZk egindako ebazpen-proposamena eta, beraz, Galdakaoko



(Bizkaia) Simón Linaza kaleko 1. zenbakiko Jabeen Erkidegoak ipini zuen salaketari uko egin diola ulertuko du, jarduerak artxibatuz, ondorioz.

EBATZI DU:

BAKARRA: Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak egindako ebazpen-proposamena eta, beraz, Galdakaoko (Bizkaia) Simón Linaza kaleko 1. zenbakiko Jabeen Erkidegoak ipini zuen salaketari uko egin diola ulertuko da, eta administrazio-jarduerak artxibatuko dira.

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta salatzaileari jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 22a

LEHENDAKARIA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

LEHENDAKARIORDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

KIDEA
M^a PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI